

## GOBERNU BATZARRA

2017.11. 27

**Alkatea:** Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko azaroaren hogeita zazpian, 08:00etan, Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

**Olatz Peon Ormazabal**

**Zinegotziak:**

**Patxi Amantegi Zubiria**  
**Nerea Letamendia Belloso**

1.- Aurreko akta onartzea.

**Idazkaria:**

2.-lurreamendi Egoitzak aurkeztutako 20/2017 eta 21/2017 faktura-zerrendak.

**Begoña Garmendia Vazquez**

**Kontuhartzaitza:**

3.-Tolosako Udalerrian ingurune irekiko gizarte eta heziketako esku-hartze zerbitzuaren lizitazioa bertan behera uztea.

**Ainhoa Molinos Zubiaurre**

4.-Santa Lutzian nekazaritza hazitegian lursaila erabiltzeko deialdia.

5.-63/2017 eta 64/2017 faktura-zerrendak.

### 1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko azaroaren 20an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### 2.- lurreamendi Egoitzak aurkeztutako 20 eta 21/2017 faktura-zerrendak.

lurreamendi Egoitzak **20/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **259.336,36** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.**- lurreamendi Egoitzak aurkeztutako **20/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari eta lurreamendi Egoitzari.

.....

lurreamendi egoitzak **21/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **36,608,93** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

#### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- lurreamendi Egoitzak aurkeztutako **21/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari eta lurreamendi Egoitzari.

### **3.-Tolosako Udalerrian ingurune irekiko gizarte eta heziketako esku-hartze zerbitzuaren lizitazioa bertan behera uztea.**

Azaroaren 22an, Tolosako Udalean Kontratazio-Mahaia bildu zen aipatutako zerbitzua adjudikatzeko.

Ikusita zerbitzuaren adjudikaziora aurkeztu den enpresa bakarra NURA Gizarte Elkartea izan dela eta esleipen prozedurari uko egin diola.

Kontutan izanda Kontratazio-Mahaiak egin duen proposamena, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

#### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Prozedura hutsik uztea eta lehenbailehen beste lizitazio bat egitea.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Nura Gizarte Elkarteari eta Gizarte Zerbitzuetako Departamentuari.

#### **4.- Santa Lutzia nekazaritza hazitegian lursaila erabiltzeko deialdia.**

Nekazaritza proiektuen hazitegia indarrean dagoen Tolosako planeamenduko T.2 – P7 eremuan kokatzen da. 1993an behin betiko onartu ziren arau subsidiarioetan, eremu hau hezkuntzarako lur eremu hiritar bezala kalifikatu zen. 2005eko uztailean, eremu honen zabalkuntza onartu zen eta kalifikazioa kontsolidatu. Baina lur jabeek desjabetze-prozesua abiarazi zuten planeamenduak jasotakoa gauzatzen ez zela ikusirik. Prozesu luze horren ondorioz, P7 lursaila Udalaren esku geratu zen horretarako epaitegiek finkatutako kalte-ordaina ordaindu ondoren. Katastralki eremu hau 4 lursailak (hiri-lurretakoak) osatzen dute ondorengo erreferentziekin: 7577073,7577051,7577101 eta 7577098.

P7 lursaila 9.695 m<sup>2</sup>-koa da. Mendebaldera N1 errepidearekin muga egiten du, ekialdera Orixe institutuarekin eta hegoaldera Pikoagatik datorren errekararekin. Lursail hau nahiko laua da eta baratzegegintzarako egokia. Hori dela eta, lur hauek inguruko baserritarrek erabili izan dituzte, beste erabilerarik gauzatzen ez zela ikusirik.

Hori guztia ikusita, lur hauen erabilera sustatzeko, Tolosako Udalak, Fraisoro eskolak eta Tolomendik hitzarmen bat sinatu zuten, nekazari hasi berriek nekazari profesional bihurtzeko egin behar duten prozesuan laguntzeko asmoz. Hitzarmen hau Gobernu Batzordeak onartu zuen 2014ko maiatzaren 23an.

Hiru erakunde hauek ondorengo eskaintzen diete nekazari profesional bihurtu nahi dutenei: baratzegegintzarako egokia den lurra eta bera lantzeko azpiegitura eta tresnak, formazioa, tutoretza eta Tolosako merkaturan bere produktuak komertzializatzeko aukera.

Hiru urte pasa dira lehen esleipena burutu zenetik. Proiektuak emaitza onak eman ditu, hirutik bik nekazari profesional bihurtzeko hautua egin baitute. Urtarrilaren 15ean hiru erabiltzaile hauek eremua utzi beharko dute eta berriak sartu.

Deialdi honek helburu hauxe dauka: Tolosako Santa Lutzia auzoan dagoen nekazaritza hazitegiaren barruan lursail bat eskuratzeko lizentzien emakidako baldintzak ezartzea.

Baratzen zein beren instalazioen ezaugarriak Tolosako Santa Lutziko nekazaritza hazitegia proiektuan jasotzen dira. Eremu guztiak 9.685 m<sup>2</sup> ditu. Hemen 3 proiektu, 3 lagun hasi ahal izango dira lurrari etekina ateratzen. 3 lursail egongo dira, gutxi gorabehera 2.500na m<sup>2</sup>-koak. Hala ere, aurkezten diren proiektuek ez badute bideragarritasun nahikorik erakusten, eremua egokitu ahal izango da bi edo lursail bat izateko.

Lursailak erabiltzeko lizentziak prekarioan emango dira eta epea gehienez ere 3 urteraino luza daiteke. Lursailen esleipendunak ez dute kuota finkorik ordaindu beharko, baina bertan sortutako gastuen kargu egin beharko dute. Fraisoro eskolak lursailetan egingo den jardueraren jarraipen pedagogikoa egingo du. Erabiltzaileek jarraipen-lan hau onartu eta erraztu egingo dute, jarraipen honen ondorioz sortzen diren aholkuak kontuan izango dituzte eta emandako aginduak bete egingo dituzte.

Santa Lutziko lursail horien erabilera eta aprobetxamendua baimentzerakoan, Tolosako Udalak eta aprobetxamendua esleitzen zaion pertsonak kontratu bat sinatuko dute, lizentzia arautuko duten baldintzak eta arauen zehaztapenekin.

Santa Lutziako nekazaritza hazitegiko partzeletako lizentzien onuradun izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Lehendik nekazaritza-ustiapeneko titularra ez izatea edo agroaldea edo lur bankuko lur sail baten esleipenduna ez izatea.
- b) Ingurumen konpromisoak hartzea edo hartuko dituela hitz ematea, 2008ko uztailaren 29ko 66/2008 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritza ustiategietako lehiakortasuna eta ingurumen iraunkortasuna hobetzeko laguntzak ezartzen dituenak, ezarritakoari jarraiki.
- c) Nekazaritzaren inguruko ikasketak amaituak izatea. Gutxienez 300 orduko ikasketak izatea Nekazaritzaren inguruan.

Puntuazio altuena lortzen duten 3 hautagaiei esleituko zaizkie lursailak.

Epaimahaiak partzelaren bat esleitu gabe utzi dezake, baldin eta aurkeztutako proiektuek bideragarritasun baldintza minimoak betetzen ez badituzte.

Aipatutakoa kontuan izanik eta espedientean agertzen diren txosten juridiko eta teknikoarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**- Tolosako Hiri Antolaketako Plan Orokorreko T.2 -Santa Lutzia- Hiri Eremuko P7 Partzelako lurak erabiltzeko lizentzien emakida arautuko duen deialdia eta hori arautuko duten baldintzak onartzea. Halaber, udalaren lizentzia emateko jardunbidea arautzen duen baldintza-pleguak, ondoko hau xedatuko du: lizentzia honek behin behineko izaeraz, eta hezkuntza-proiektuaren garapenarekin baldintzatuta emango da, zera, lursail hauek libre utzi beharko dira hezkuntza-ekipamendua gauzatzen den unean. Kasu horretan, Tolosako udalak ahaleginak egingo ditu proiektu honetarako kokapen alternatibo bat bilatzeko.

*Atal hau, Baldintza-Pleguaren 2. klausulako 2. paragrafoaren amaieran jarriko da.*

**BIGARRENA**.- Lurren erabilera esleitzeko jardunbideari hasiera ematea, dagozkion iragarkiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Web Orrian eta kontratugilearen profilean argitaratuz.

**HIRUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Obra eta Zerbitzuetako eta Ingurumen departamentuei, Idazkaritzari, Tolomendiri eta Fraisoro eskolari.

Tokiko Gobernu Batzarreko kideek aho batez erabaki dute jatorrizko proposamenaren testua aldatzea, beltzez idatzitako esaldia txertatuz, indarrean dagoen planeamenduak lursail hauek hezkuntza-zuzkidurarako erreserbatu dituela kontutan hartuta.

**5.- 63/2017 eta 64/2017 faktura-errendak.**

Kontuhartzaitzak **63/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **4.936,86** -koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.-** **63/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **64/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **110.737,56 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.-** **64/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**